

Liburutegien Estatistika
Nafarroako Foru Komunitatea. 2022. urtea

Nafarroak Estatuan biztanleko liburutegietara egiten den bisita-tasa altuena du, 3,7 bisita, batez beste

Nafarren % 55,3 liburutegi-zerbitzuen erabiltzaileak izan dira

2023ko abenduaren 1a

Liburutegien % 84,4 Administrazioak finantzatu ditu eta % 15,6 bide pribatutik finantzatu dira. Finantzaketa publikoa Administrazio autonomikoari eta Udal eta toki-erakundeei egokitu zaie nagusiki (% 50,5 eta % 20,6, hurrenez hurren).

Liburutegien % 83,2k haien katalogo eta/edo funtsetara sartzeko aukera eskaini dute Internet bidez.

Liburu inprimatuen eskariak % 28,9 egin du gora, eta liburu elektronikoenak, berriz, % 427,3 egin du gora 2020aren.


Liburutegien pertsonala plantillako 368 pertsonak eta pertsonal bekadun eta boluntarioak diren 41 laguntzailek eratzen dute.



LIBURUTEGIAREN MOTA ETA TITULARTASUNA

Motaren arabera. Liburutegien % 65,7 publikoak dira; liburutegien % 28,0, espezializatuak; % 3,5, goi-mailako irakaskuntza-erakundeena, eta % 2,8, erabiltzaile talde berezientzat (ez-espezializatuak).

1. GRAFIKOA



Iturria: Nastat. Liburutegien Estatistika. Kultura eta Kirol Ministerioarekin eta EINEkin elkarlanean.

Liburutegi espezializatuak honela xehakatu daitezke: erlijio-erakundeena (% 27,5), artxibo eta museoen liburutegiak (22,5%), Administrazioarenak (% 20,0) eta beste batzuk (% 30,0).

Titulartasunaren arabera. Liburutegien % 79,0 titulartasun publikokoak dira, % 17,5 pribatuak, % 2,1 unibertsitatekoak eta gainerako % 1,4 beste titulartasun batekoak. Titulartasun publikoko 113 liburutegietatik, % 84,1ean toki-administrazioak du titulartasuna, % 12,4an administrazio autonomikoak eta gainerako % 3,5a Estatuko Administrazio Orokorrak.

1. TAULA

Liburutegiak, liburutegiaren titulartasunaren* arabera

	Liburutegiak		Portzentajea guztizkoaren gainean		% aldakuntza
	2020. urtea	2022. urtea	2020. urtea	2022. urtea	2020-2022
Guztira	149	143	100,0	100,0	-4,0
Estatuko Administrazio Orokorra	5	4	3,4	2,8	-20,0
Administrazio autonomikoa	18	14	12,1	9,8	-22,2
Toki-administrazioa	95	95	63,8	66,4	0,0
Pribatua	26	25	17,4	17,5	-3,8
Unibertsitaria	3	3	2,0	2,1	0,0
Beste titulartasun bat	2	2	1,3	1,4	0,0

Iturria: Nastat. Liburutegien Estatistika. Kultura eta Kirol Ministerioarekin eta EINEkin elkarlanean.

* Titulartasuntzat honako hau jotzen da: liburutegiaren ondare-titular gisa agertzen den pertsona fisikoa edo juridikoa, nahiz eta, batzuetan, liburutegia finantzatzen edo kudeatzen duen erakundearekin bat ez etorri.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

Finantzaketaren arabera. Liburutegien % 84,4 Administrazioak finantzatu ditu eta % 15,6 bide pribatutik finantzatu dira. Finantzaketa publikoa administrazio autonomikoari eta udal eta toki-erakundeei egokitu zaie nagusiki (% 50,5 eta % 30,6, hurrenez hurren).

ZERBITZU-PUNTUAK, IZENA EMANDAKO ERABILTZAILEAK ETA BISITAK

Emaitzen interpretazioan kontuan hartu behar da azken datuak 2020. urtekoak direla, COVID-19 krisian murgilduta, eta horrek bereziki eragin ahal izan diela aldagai batzuei.

Liburutegien guztizkoari dagokionez, Nafarroan, 100.000 biztanleko 21,7 liburutegi daude batez beste; tasa handiena duen laugarren autonomia-erkidegoa da, Extremaduraren, Gaztela-Mantxaren eta Aragoiren atzetik (43,4, 24,5 eta 22,4, hurrenez hurren).


Zerbitzu-puntuak. Liburutegien mendeko 154 zerbitzu-puntu edo lokal izan dira 2022an; liburutegi bakoitzeko 1,1 zerbitzu-puntu izan dira, batez beste.

Izena emandako pertsonak. 2022an, 367.188 pertsona egon dira izena emanda, 2020an baino % 0,5 gehiago (369.118). Termino erlatiboetan, nafarren % 55,3 liburutegi-zerbitzuen erabiltzaileak izan dira. Batez beste, 2.568 erabiltzaile egon dira izena emanda liburutegiko. Liburutegi publikoek 322.823 erabiltzaile izan dituzte izena emanda, guztizkoaren % 87,9.

Bisitak salan. 2022an, 2.468,0 mila bisita izan dira salan, 2020an baino gehiago (1.594,4 mila). Horrek esan nahi du biztanle bakoitza liburutegi batera 3,7 aldiz bertaratu dela, batez beste, Estatuan biztanle bakoitzeko bisita-tasa altuena.

2. GRAFIKOA

Bisitak salan autonomia-erkidegoaren arabera. Tasa 100.000 biztanleko. 2022. urtea.



Iturria: Nastat. Liburutegien Estatistika. Kultura eta Kirol Ministerioarekin eta EInekin elkarlanean.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

FUNTSAK ETA MAILEGUAK

Funtsak¹. Funtsak bolumenetan eta unitateetan sailkatzen dira. Liburutegietako **liburukiak**, guztira, 5.167,4 mila ziren 2022ko abenduaren 31n, eta guztira 4.898,9 mila liburu eta liburuxka (580 mila liburu elektronikoa barne), hau da, liburukien % 94,8. Aldizkako argitalpenak 251 mila dira, bolumen guztien % 4,9, eta gainerako % 0,3 eskuizkribuak dira.

2. TAULA

Liburutegiak, funtsen bolumenaren dimentsioaren arabera. 2022. urtea.

	Guztira	2.000 arte	2.001-5.000	5.001-10.000	10.001-20.000	20.001-50.000	50.001-100.000	100.000 baino gehiago
Liburutegiak	143	6	10	28	61	31	2	5
%	100,0	4,2	7,0	19,6	42,7	21,7	1,4	3,5

Iturria: Nastat. Liburutegien Estatistika. Kultura eta Kirol Ministerioarekin eta EINEkin elkarlanean.

Liburutegi publikoek izan dituzte bolumenen guztizkoaren % 39,3; erabiltzaileen talde espezifikoenek, % 0,5; goi-mailako irakaskuntza-erakundeek, % 42,2, eta espezializatuek, guztizkoaren % 18,0.

Unitateei dagokienez, soinu-dokumentuak 59.205 unitate izan dira (% 9,5); 339.997 ikus-entzunezko (% 54,5), eta, bilduma elektronikoa eta beste dokumentu batzuei dagokienez, 150.076 (% 24,0). Dokumentu grafikoak, kartografikoak, musika-partituren eta mikroformen zifrek gainerako unitateen % 12,0 osatu zuten.

Katalogo automatizatuan guztira 5.128,6 mila ale izan dira, 2020an baino % 9,8 gehiago.

Maileguak. Liburutegien erabiltzaileek 1.211,7 mila dokumentu hartu zituzten etxean maileguan 2022an (biztanleko 1,8 liburu), 2020an baino % 60,4 gehiago (erreferentziako aldia COVID-19 pandemian murgilduta). Gehien eskatutako dokumentuak izan dira liburu inprimatuak (% 62,7), liburu elektronikoa (% 30,4) eta ikus-entzunezko dokumentuak (% 6,1).

Liburu inprimatuen eskariak % 28,9 egin du behera, eta 760,2 milakoa izan da; liburu elektronikoenak, berriz, % 427,3 egin du gora, 2020aren aldean, eta 367.786 izan dira.

Liburutegien artean eginiko mailegu kopurua (15.066) % 0,1 jaitsi da, 2020aren aldean, eta jasotako maileguen kopurua (14.018) % 18,9 jaitsi da.

¹ Liburutegiko funtsak liburukitan eta unitatetan banatzen dira. Liburukien barruan, funts gehienak liburu eta liburuxkei dagozkie, baina liburu elektronikoa, aldizkako argitalpenak eta eskuizkribuak eta dokumentuak ere sartzen dira. Unitateek barne hartzen dituzte soinu-dokumentuak, ikus-entzunezkoak, grafikoak eta kartografikoak, mikroformak, musika-partiturak, bilduma elektronikoa eta beste dokumentu batzuk.



3. TAULA

Liburutegien artean egindako eta jasotako maileguak. 2022. urtea.

	Espainiako liburutegiak			Atzerriko liburutegiak		
	Guztira	Originala	Kopiak	Guztira	Originala	Kopiak
Egindako maileguak	14.650	9.438	5.212	416	45	371
Jasotako maileguak	13.512	10.558	2.954	506	141	365

Iturria: Nastat. Liburutegien Estatistika. Kultura eta Kirol Ministerioarekin eta EINEkin elkarlanean.

AZPIEGITURA ETA EKIPAMENDUA

Azpiegitura. Liburutegien % 63,6 astean 20 eta 40 ordu bitartean izan dira jendearentzat zabalik; liburutegien % 23,1 astean gehienez 20 ordu izan dira zabalik eta % 13,3, astean 40 ordu baino gehiago.

Liburutegi-erabilerarako azalera erabilgarria ez zen 100 m²-ra iristen 29 liburutegitan (guztizkoaren % 20,3), 100 eta 249 m² artean zeuden 54 liburutegitan (% 37,8), 250 eta 499 m² artean 33 liburutegitan (% 23,1), eta 27 liburutegitarako, % 18,9, 499 m²-tik gorako azalera zuten.

Aretora sarrera libreza izan da liburutegi gehienetan, 122tan (% 85,3); 21 kasutan (% 17,4) sarbidea mugatua izan da. Liburutegien % 83,2k haien katalogo eta/edo funtsetara Internet bidez sartzeko aukera eskaini dute; % 77,6k, modu librean sartzekoa, eta % 5,6k, modu mugatuan sartzekoa.


Ekipamendua. 2022an, liburutegien % 84,6k erabilera publiko eskusiboko ordenagailuak izan dituzte, eta % 94,4k, barne-kudeaketarako edo mistorakoak. Ordenagailu kopuru osoak % 6,6 egin du behera, 2022arekin alderatuta, eta 1.067 izan dira (7,5 ordenagailu liburutegiko); inprimagailu eta eskaner kopurua aurreko aldiko zifra bera izan da, 263 eta 135, hurrenez hurren.

Katalogazio automatizatua liburutegien % 84,6k izan dute eskuragarri (% 80,5ek, 2020an), eta lineako sarbide publikoko katalogoa (OPAC) % 77,6k, eta 2020an % 71,8k.

Lineako sarbide publikoko katalogoari (OPAC) dagokionez, zerbitzu hori liburutegi publikoen % 88,3k izan dute, goi-mailako irakaskuntza-erakundeen % 100,0ek eta liburutegi espezializatuen % 57,5ek.

3. GRAFIKOA

Liburutegiak, eskaintako Internet zerbitzuen arabera (%).2022. urtea



Iturria: Nastat. Liburutegien Estatistika. Kultura eta Kirol Ministerioarekin eta EINEkin elkarlanean.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00


PERTSONALA

2022an, ikertutako liburutegietako plantillan 368 langile daudela estimatu da (lanaldi osoko 339 pertsonaren baliokidea), eta, gainera, plantillan bekadun eta boluntario gisa sartuta ez dauden 41 pertsonak lagundu dute (lanaldi osoko 16 pertsonaren baliokidea).

Plantillako langileen tipologiari dagokionez, liburuzain profesionalak % 34,0 dira, liburutegietako laguntzaileak % 54,3, langile espezializatuak % 3,0 eta bestelako langileak % 8,7.

4. GRAFIKOA

Personala, betetzen dituen funtzioen arabera. Balio absolutuetan. 2022. Urtea



Iturria: Nastat. Liburutegien Estatistika. Kultura eta Kirol Ministerioarekin eta EINEkin elkarlanean.

Liburutegi publikoek 169 pertsona dituzte plantillan; erabiltzaileen talde espezifikoetarako liburutegiek, 4 pertsona; irakaskuntza-erakundeetako liburutegien plantilla 136 pertsonakoa da, eta espezializatuetan 59 pertsonak ematen dute zerbitzu, guztira.





OHAR METODOLOGIKOA

Liburutegien Estatistika bi urtez behingo estatistika-eragiketetan sartzen da; beraz, inkestaren azken edizioa 2020ari dagokio. Aurrekoak 2020koa, 2018koa eta 2016koa izan ziren.

Kultura eta Kirol Ministerioak (MCUD) garatutako eragiketa da, eta autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien laguntza du, Liburutegien Estatistikarako Talde Teknikoaren, Espainiako Liburutegi Nazionalaren, Defentsa Ministerioaren, Guardia Zibilarren, Espainiako Unibertsitate Liburutegien Sarearen (REBIUN) eta Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) bidez. Erakunde hori arduratu zen hura egiteaz 2018ko ediziora arte.

Aurreko edizioetako emaitzekin erkaketak egitean, kontuan izan behar da funtsezko aldaketak izan direla iturrietan eta datuak biltzeko metodoetan bereziki eragina duen metodologian.

Inkesta honen helburu nagusia da erakunde horien ezaugarri nagusiei buruzko informazioa ematea: ekipamendua; instalazioak; jarduera; baliabide materialak eta ekonomikoak eta giza baliabideak; finantzaketa-mota, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera.

Inkesta mota: Bi urtez behingoa.

Biztanleria-esparrua: Aztergai dugun populazioa liburutegiek osatzen dute, edozein dela ere haien administrazio-mendekotasuna, eskola-liburutegiek, eta izaera partikularrekoek eta publikoarentzat irisgarriak ez direnek (inolako baldintzapean) izan ezik. Zehazki, estatistika hau egiteko, liburutegitzat hartzen da zerbitzu-puntu batez edo gehiagoz osatuta egon daitekeen administrazio-unitatea.

Esparru geografikoa: Lurralde nazional osoa.

Emaitzen erreferentzia-aldia: 2022. urtea.

Informazioaren erreferentzia-aldia: Ezaugarri jakin batzuetarako urte natural osoa da, eta beste ezaugarri batzuetarako, berriz, 2022ko abenduaren 31.

Laginketa-mota: Zentsua.

Biltzeko metodoa: Liburutegi publikoetarako, Alzira datu-basean eskuragarri dauden administrazio-erregistroak berrerabiliz. Ez-publikoen kasuan, bilketa galdetegi bidez egiten da.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Liburutegien Estatistika. 2022. urtea.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00